

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Gaubeako udal sektore publikoaren 2021erako aurrekontuari

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatutakoarekin, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da, honela laburtuta:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Langile gastuak	469.182,43
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	688.692,59
III. Finantza gastuak	11.252,08
IV. Transferentzia arruntak	249.633,93
VI. Inbertsio errealak	190.500,00
IX. Finantza-pasiboak	165.712,94
Gastuen egoera, guztira	1.774.973,97

Diru sarreraren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Zuzeneko zergak	494.758,24
II. Zeharkako zergak	30.000,00
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	82.250,00
IV. Transferentzia arruntak	1.055.265,73
V. Ondare bidezko diru sarrerak	1.500,00
VII. Kapital transferentziak	111.200,00
Diru sarreraren egoera, guztira	1.774.973,97

Gaubeako Turismo Patronatua

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Langile gastuak	45.000,00
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	2.400,00
III. Finantza gastuak	100,00
Gastuen egoera, guztira	47.500,00

Diru sarreraren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	1.500,00
IV. Transferentzia arruntak	46.000,00
Diru sarreraren egoera, guztira	47.500,00

Aldi berean, eta bat etorritik Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1998 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten da udalaren lanpostu zerrenda.

Eranskina

Lanpostu zerrenda

Udal honek onetsitako lanpostu zerrenda argitaratzen da, bat etorritik toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 16. artikuluan araututakoarekin.

Lanpostuaren izena; lantokia; lanaldia; titulazioa; lanbide kategoria; hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data; taldea; maila; betetzeko era; egoera; lanpostu kopurua.

Gaubeako Udala

Karrerako funtzionarioak:

Idazkari kontuhartzailea; Gaubeako Udala; lanaldi erdia; lizentziaduna zuzenbidean, politika eta administrazio zientzietan, soziologian, enpresen administrazio eta zuzendaritzan, edo ekonomia, aktuariotza eta finantza zientzietan; teknikariak; 4; derrigortasun data: 2012ko abenduaren 12a; a1; 23; lehiaketa; hutsik; 1.

Administraria; Gaubeako Udala; eskusiboa (ehuneko 100); goi mailako batxilergoa, LH2 edo baliokidea; administrariak; 2; derrigortasun datarik gabe; b1; 15; oposizio-lehiaketa; aktiboan; 2.

Administrari laguntzailea; Gaubeako Udala; eskusiboa (ehuneko 100); eskola graduatua, LH1 edo baliokidea; laguntzaileak; 2; derrigortasun datarik gabe; b2; 12; oposizio-lehiaketa; aktiboan; 1.

Gizarte laguntzailea; Gaubeako Udala (oinarrizko gizarte zerbitzua); eskusiboa (ehuneko 100); gizarte laneko diplomaduna; teknikariak; 3; derrigortasun datarik gabe; a2; 20; oposizio-lehiaketa; aktiboan; 1

Lan kontratu mugagabedun langileak:

Lanpostuaren izena; lantokia; lanaldia; titulazioa; lanbide kategoria; egoera; lanpostu kopurua; hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data; maila; betetzeko era; C1; 13.

Administrazio batzarretan laguntzailea; Gaubeako Udala, eskusiboa, eskola gradua, LH1 edo baliokidea; laguntzaileak; hutsik; 1.

Soroslea; udal igerilekua; eskusiboa; bigarren hezkuntzan gradua edo baliokidea; uretako soroslea; menpekoak; hutsik, 1.

Liburutegiko administrari laguntzailea; udal liburutegia; eskusiboa; eskola gradua edo 1. mailako Lanbide Heziketa; laguntzaileak; hutsik; 1; 2; derrigortasun datarik gabe.

Gobea ikastetxe publikoko atezaina; Gobearen ikastetxe publikoa; eskusiboa; eskola gradua, LH1 edo baliokidea; menpekoak; hutsik; 1; 2; derrigortasun data: 2016ko abenduaren 31.

Administrari laguntzailea. Gaubeako Udal Patronatu; turismo bulegoa; eskusiboa; eskola gradua edo 1. mailako Lanbide Heziketa; laguntzaileak; hutsik; 1; 2; derrigortasun datarik gabe.

Aldi baterako lan kontratudun langileak:

Soroslea; udal igerilekua; partziala; uretako soroslea; menpekoak; hutsik, 1.

Zerbitzu goiztiarra: erabilera anitzeko gelak; eskola gradua edo baliokidea; menpekoak; hutsik; 1.

Garbiketa zerbitzua: Gobearen ikastetxe publikoa; eskola gradua edo baliokidea; hutsik; 2.

Gaubeako udal sektore publikoaren 2021erako aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2021eko otsailaren 3a

Alkate-lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI